

CYBER MONDAY 20%  
10% dto. directo + 10% dto  
sin compra m  
26 de noviembre de 2018. Exclusivo online



Euskadi, auzolana

ELISKO JAHLKLARITZA GOBIERNO VASCO

## Literatura beltzean murgildu da oraingoan Edorta Jimenez



'Ostaddirak lurra ukitzen duen lekua' liburuaren azala.

**'Ostaddirak lurra ukitzen duen lekua' nobelako protagonista nagusia ertzain jubilatatu bat da. Istorioan zehar ustelkeria, biolentzia, tortura eta sexua gurutzatzen dira**

AMALIA IBARGUTXI  
Jueves, 22 noviembre 2018, 22:56

0

**Edorta Jimenezek (Mundaka, 1953) genero beltzeko eleberria plazaratu du** oraingoan, Txalaparta argitaletxearen bidez: 'Ostaddirak lurra ukitzen duen lekua'. Protagonista nagusia ertzain jubilatatu bat da, ezizenez 'Camboya' esaten diotena.

Hona hemen istorioaren abiapuntua: 'Camoya' ertzain jubilatua Arkauten ikasle izan zuen Gaztelurekin urtebetetzea ospatzen ari da. Bien urtebetetzea, biak egun berean jaioak baitira, bost urteko tartearekin; abuztuaren 6an, 1945ean Hiroshiman bonba jaurti zuten horrexetan hain zuzen. Ospakizuna itsasoan egitea deliberatu dute, Camboya-ren 'Amets Bi' ontzian, hegaluzeak arrantzatzen dituzten artean. Horretan ari direla, haien Buru ohiaren, Nagusiren, txaleta zaintzeko zeuden **hiru txakurren desagerketa ikertzeko laguntza eskatuko diote ertzain jubilatuari**, zenbait urte lehenago Bizkaia aldean izan zen zakur-borroka apustuen kasua argitu zuenez gero.

PUBLICIDAD



inRead invented by Teads

Txakurren kasuan sakondu ahala, mamu zaharrak agertuko zaizkio Camboiyari; garai latzetan hartutako erabakien pisuak habia egingo du ertzain zaharraren gogoan. Tostartekoen kontrako jazarraldiak; **terrorismoaz akusaturikoen kontrako torturak**; militante baten heriotzarekin amaituko den segada; pilota-kolpe batez akabatutako gaztea... Gainera, egindako estolda-lanek oraina hankaz gora jartzera etorriko dira.

Edorta Jimenezen eleberri beltz honetan protagonista ezberdinen istorioak txirikordatzen joango dira, eta haiekin batera tortura, **ustelkeria, biolentzia, sexua, erruduntasuna eta maitasuna**, azkenean haien iragana eta patua guztiz nahastu arte.

Eleberriaren oinarrian, Jimenezek (H)ilbeltza Bekara bidalitako lagina dago. Ez zen garaile atera, baina aurrera jarraitu zuen nobela-proiektuarekin.

**Bederatzi urte igaro dira jada 'Stock 13' (Txalaparta) polemikoa argitara eman zuenetik.** Autofikzio tankerako narrazioa zen, euskal literaturako puritanismo sexualari astindua eman nahian idatzitakoa. 2010ean 'Haragizko amoreak' (Susa) poesia-bilduma plazaratu zuen, eta harrezkero literatur libururik kaleratu gabe zegoen Mundakako idazlea.

Tarte honetan, Hemingwayren inguruko proiektu handi batean eta Euskal Memoriaren urteroko argitalpenetan ibili da buru-belarri sartuta.

---

TEMAS Euskera